

Centennials



ULA IRURETAGOIENA

Unibertsitateko ikasleak azterketa garaian dauden bitartean, irakasleoi ikasturtea ixtea dagokigu. Irakasleak talde txikitik biltzean oso ohikoa da urte batetik besterako aldaketen gainekoak konpartitzea eta hausnarketa-aren brindis gisara ikasle belaunaldiaren ezaugarritzea egitea, ikasleriak pairatzen dituen gatazkak atzera begirakoan eta konparaketan ulerkorragoak edo enpatikoagoak gertatuko zaizkigun ilusiopean. Egia dena da, irakasleontzat urtetik urtera ikasleak gazteagoak egiten zaizkigula adin bereko taldeak izan arren, ikasleekiko adin tartea handitzeagatik bakarrik.

Centennials-ak ari dira unibertsitateko gelak betetzen. Klasera sartu eta ordenagailuko pantailaren atzean eseritzen dira (debekaturik egon ezean) eta multi-tasking-a praktikatzeko dute; irakaslearen kontakizunarekin batera beste lan batzuk egin eta googleatzen dute aldi berean. Arreta eginkizun bakarrean izateak denbora galtzearen sentazioa hartzen baitie. Klaro, lanak epe laburrera ekoiztera oso ohituta daude eta zeregin asko eskatzen zaizkie.

Arkitekturako centennials-ek argi dute eraikin berri bat egiteak energia eta baliabide natural tonen xahutzea dakarrela, eta berri bat egin aurretik daukagun eraikin baten eraberritzeak zentzu handiagoa duela. Etxebizitzaren krisialdiaren berri dute, emantzipaziorako bidean koska bat izango zaiena. Beraien lanen helburuak azaltzerakoan, hiru hitz bolo-bolo darabilte: jasangarritasuna, dibertsitatea eta komunitatea. Hitz bakoitzak ekologia, generoa eta kolektibotasunaren diskurtso nagusiei egiten die erreferentzia, hurrenez hurren, sare sozialetatik iristen zaiena eta adostasun maila handiarekin errepikatzen dutena. Zuzentasun politikoko mezuetan murgiltzen dira, kuestionamendu handirik gabe, badaezpada. Klase tarte gutxi daude eztabaidara bideratuak, bestelako metodologia eguneratuagoak praktikatzeko direlako.

Ikasgelak inoiz baino iragazkortasun handiagoa du kanpoan gertatzen denarekiko: ispilu egiten gaitu. ●

Arteak ez baitu generorik



HERNANIKO UDALA

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Preludioa Hernanin: herriko jaiak iragartzeko bertako musika talde, abesbatz eta orotariko artistek oholtzaren euste gaitasuna mugaraino eramaten duten kontzertu hotsandikoa. Aurten ekainaren 14an, aurten 30. edizioa, aurten 190 inguru parte-hartzaile, aurten lehen aldiz zuzendari musikala emakumezkoa: Judith Montero Imaz.

Monterok Hernaniko Musika Eskolan ekin zion saxofoiari hotsak ateratzeari eta gaztetxotan jantzi zituen lehen aldiz txaketa iluna eta alkondara zuria herriko bandan jotzeko. Hernaniko musika "ekosistemaz" mintzo da, bertako parte izanik. Herriko preludea zuzentzera iristea ibilbide baten aitortza ere bada eta Monterok kolektibotasunetik heldu dio batutari: emakume izateak bere ibilbidean izan duen kargaren kontzientziatik, emakumeek musikaren historian egin duten ekarpenari leku egin dio, preludiorako hautatu dituen partituren bidez.

Hernaniko* –bertan jaio, bizi edo lan egiten duena– konposatzaileengan jarri du fokua: Olatz Zugasti, Maite Larburu eta Anne Perez de Azpeitiaren obrak interpretatuko dira, besteak beste. Herriko hainbat ahots ezagun ere oholtzan izango dira: Maialen Lujanbio eta Nahia Valle –azken honek Zea Mays taldearen kantauak abestuko ditu–. Sufragista ingelesek kartzelako patioan desfilatu bitartean abesten zuten *Andrean martxa* ere estreinatuko da bertan: Nere eta Maialen Lujanbiok euskaratu dituzte hitzak eta Igor Arroyok moldatu ditu abesbatzentzat.

Hamasei pieza edo tarte izango ditu preludeoak. Horietatik sei badira gizonek sortuak: batetik, urtero jotzen diren *Mendiriz Mendi* eta *San Juan* zortzikoa. Bestetik, aurten Isidro Ansorena txistulariaren heriotzaren 50. urteurrena denez, haren eta hari eskainitako bi pieza; eta hirugarrenik, Alan Griffin izango da gogoan eta haren bi pieza joko dira.

Aurtengo preludeoak berdintasunaren oreka ideala lortu ote duen edo emakumeek protagonismo gehitxo eskuratu ote duten pentsakor zaude? Ba egon lasai, orain arte egon zaren bezalaxe: aurtengo preludeoak gizonei kontzertu bakarrean eskaini die aurreko 29 kontzertuetan guztira emakumeei utzi dien espazio bera: aurreko 29 urteetan 294 obra inguru interpretatu ziren eta horietatik 6 ziren emakumeek sortu edo moldatutakoak. Monterok preludeoaren aurkezpenean politikari eta zuzendariak duten erantzukizunean jarri zuen azentua, eta soste-nitu zuen 2003tik dioela legeak diru publikoaz egiten diren kultur ekitaldietan berdintasuna bermatu behar dela.

"Arteak ez du generorik, baina bizitzak bai" esan zuen zuzendariak eta zaintza lanak medio gizon eta emakume sortzaileek ez dutela arterako tarte bera izan azaldu zuen. Ez jotzeko, ez jotzeko: laster egingo ditu 175 urte Hernaniko bandak eta emakumeek 40 urte baino gutxiago daramatzate. Bide luzea eta preludeo gozagarria desio dizkiet. ●